

SARRERA

ELKARBIZITZA PLANA

HELBURUA

- **Bizikidetzari buruzko kultura berria sortzea, errespetuan, akordioetan eta elkarrizketan oinarritua.**
- **Ikastetxean denok gusturago eta hobeto sentitzea eta gatazkak bide baketsuetatik bideratzea. Gatazkei era baketsu eta positiboan aurre egiten ikastea (gatazkak giza harremani estuki lotutako prozesuak dira, kontua ez da gatazkarik ez izatea baizik eta gatazkak era egokian kudeatzea).**

1.- Gure arautegia ez da izango eredu zigortzaile hutsa

Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei buruzko 201/2008 dekretuan oinarrituta egindako gure Ikastetxeko Barne Araudiaren 4.2.1 atalean jasotakoa erabiliko da.

“4.2.1 Jokabidea zuzentzeko bide adiskidetsuak (42.art.).

Neurri zuzentzaile punitiborik erabili gabe bide alternatiboak erabilia zuzentzeko ahalegina egingo du Zuzendariak edota dagokion irakasleak”.

Erabili beharreko prozedura atal horretan garatuta dagoena da. Bide adiskidetsuetatik arazoaren konponbidea lortuko ez balitz, kaltea eragin duenari OOGnak onartutako eta aurretik aipatutako araudiak dioen neurri zuzentzailea aplikatutako zaio.

2.- Estructura

ELKARBIZITZA BEHATOKIA

Era honetara osatua:

- Orientatzailea
- Guraso bat (permanenteko kideetako bat)
- Zuzendaritzako kide bat
- Irakasle bolondresa
- Ikasle bat
- Beharren arabera eta arazoa ikasle batekin denean, ikaslearen tutorea partaide izango da.

Eginkizunak: Ikasle eta gurasoentzat galdeketak prestatu
Datuak bildu, aztertu eta ondorioak atera
Arazoak detektatu eta konponbidea
bilatzeko pausoak ematen hasi.

Zure seme-alabek beste ikasleekin dituzten harremanetan (elkarbizitza) gora-beherak sumatuko bazenitu, honako helbide hau ere erabil dezakezu: **aralarbhibizikidetza@gmail.com**

DISZIPLINA BATZORDEA

Honako kide hauez osatua:

- Irakasle bat: behatokiko kidea ez dena.
- Zuzendaria.
- Ikasketa burua.
- Ikaslea behatokikoa ez dena.
- Ikasle bati buruzko neurriak hartu behar direnean, **ikasle berak** gertatutakoaren berri emateko aukera izango du. Dena den azken hau ikaslearen erabakia izango litzateke.

- Guraso bat. Behatokiko kidearekin harremanetan egongo dena.

1. PRINTZIPIO OROKORRAK.

- Araudi hau Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei buruzko 201/2008 dekretuan agindutakoan oinarritzen da. Araudi honetako zerbait argitu beharrean suertatuz gero, dekretu horretara joko da.
- Ikasleek beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrak betetzen ikasi behar dute, bizikidetzari lehentasuna emanez.
- Ikasleek gizarte eta hiritar gaitasuna eskuratu behar dute bere ikasketa-ibilbidean.
- Ikasleek bere betebeharrak urratzea edota hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten edo oztopatzen dieten jokabideak ez dira onargarriak.
- Bereziki zaindu beharrekoak dira:
 - Tratu txarreko egoerak.
 - Teknologia berriak erabiliz irudi eta ohore pertsonalari egindako erasoak.
 - Sexu jazarpena.
 - Bazterketa eta arrazakeria.
- Institutuko arau-sistema osoak helburu hezitzailea izango du lehentasun.
- Jarrera okerrak zuzentzerakoan lehentasuna emango zaie beti adiskidetzeko eta kalteak konpontzeko bideei.

- Zenbait kasutan bitartekaritza konpontzailea erabiliko da. Modu honetan neurri zuzentzailea ezartzeko prozedura bertan behera utziko da.

Horretarako bete beharreko baldintzak hauek izango dira:

- Gatazkan dauden pertsonen bitartekaritza prozesuan aktiboki parte hartzeko gaitasuna izan behar dute.
- Gatazka ebazteko benetako borondatea erakutsi behar dute.
- Bi aldeek fede ona izan behar dute.
- Eranzunkizuna hartzeko gaitasuna eta arazoa konpontzeko gaitasuna erakutsi behar dute.
- Jokabide bortitzik ez dute erakutsi behar.
- Ez du egon behar bi aldeen artean botere desorekarik.
- Bi aldeek, hartutako erabakiarekin gustura sentitu behar dute, bai mindua izan dena eta bai mina sortu duena.
- Prozesua aurrera emateko **bitartekariaren** laguntza izango dute.

Akordioa hautsiko balitz, Barne Araudia aplikatuko litzateke.

- Ahal den neurrian, familiak ere inplikatu dira jokabide okerren zuzenketan.
- Eginbideak azkarki, laburki eta epe finkoetan burutuko dira.
- Zuzendariak pisu berezia izango du eginbideetan, hauek aurrera egin ahala, berari egokituko baitzaizkio erabaki garrantzitsuenak.

- Hutsegite zuzenketan edota neurri zuzentzaileak ezartzerakoan sortutako dokumentazio guztia ikasturte amaieran suntsituko da. Auzi zibilik edo penalik tarteko bada, beharrezko dokumentazioa gordeko da.

2. ZUZENDU BEHARREKO JOKABIDE MOTA DESBERDINAK.

Jokabide mota desberdinak bereiziko dira:

- Jokabide desegokiak (JD).
- Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak (BAJ).
- Bizikidetzari kalte larriak eragiten dioten jokabideak (BKL).

2.1 JOKABIDE DESEGOKIAK (30.art.).

- Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- Klasean asko hitz egitea.
- Ikastetxeko eremuan erretzea.
- Ikastetxeko jangelara abisurik gabe ez joatea.
- Justifikatu gabeko bertaratze hutsegiteak eta baimenik gabe ikastetxeko esparrutik ateratzea.
- Ikastetxeko instalazioei, materialei edota beste kideen gauzei portaera zabarraren ondorioz kalteak eragitea.
- Kideen aurkako adeitasun ezako jarrerak, keinu edo hitzak.
- Irakasleen aginduak ez betetzea, irakaslearen esanei jaramonik ez egitea.

- Zentrora debekatutako jantzi, aparatu, ekipo eta beste ekartzea.
- Zentroko ekipamendua baimenik gabe erabiltzea.
- Ikastetxeko langileei informazio faltsuak ematea, honek inorentzako kalterik sortzen ez badu.
- Kalifikazioetan eragina duten ariketak edota azterketak kopiazea.
- Ikastetxeoak ez diren pertsoneri zentroan sartzen erraztea edo beraiekin sartzea.
- Besteen gauzak erabiltzea haien borondatearen aurka.
- Oro har, norberaren betebeharren ez betetzea, gainontzekoei beren eskubideak baliatzea eragozten ez badie. Honela jokabide desegokitzat jotzen dira hauek ere:
- Jardueretan jarrera pasiboa izatea.
- Etxeko lanak egin gabe etortzea.
- Azterketetan kopiazea.
- Beharrezko Ikasmaterial edota arropa aproposarik gabe etortzea.
- Pasilloetan aritzea klase arteko hutsarteetan.
- Leihotik kanpora, edo kanpoaldetik institutuko egoitzan daudenei garrasika, oihuka, edo gauzak botatzen jardutea.
- Ikastetxearen inguruan edo sarrera-irteeretan behar den jokabidea ez erakustea.
- Pasilloetan behar den jarrera ez erakustea: korrika, kantuan, txistuka igarotzea.
- Atsedendietan, eguerdietan edota goizeko txirrinak jo baino lehen, geletan edota lehenengo edo bigarren solairuetan egotea.
- Argia eta ura alferrik gastatzen uztea.

- Papera, bai idaztekoa, bai komunekoa, alferrik gastatzea.
- Papera birziklatzeko egin beharrekoak ez egitea.
- Lehen Hezkuntzako eskolarekin partekatzen ditugun espazio amankomunak era desegokian erabiltzea:
 - Lehen pisuko komunak (teknologiako saioretan izan ezik) erabiltzea.
 - Lehen Hezkuntzako eskailera edo pasabideak erabiltzea.
 - Larruzko baloiaz edo jolas bortitzetan aritzea jolaslekuan eta ikastetxe eremuan.
 - Txirrina, skate, patinete, patinak edo antzekoen gainean jolaslekuetan ibili edo hauek zeharkatzea.
 - Jolaslekuan zorura zaborra botatzea.
- Jarduera osagarrietan, ikastetxean duten jarrera berdina izan behar dute. Beraz, kanpoko ekintzetan jarrera desegokizat hartuko dira:
 - Berandu iristea.
 - Garraioan gaizki portatzea.
 - Ekintzetan ez parte hartzea.
 - Irakasleak esandakoa ez betetzea.
 - Azalpenak eman bitartean jarrera desegokia izatea.
 - Ekintza arduradunak atentzioa deitu behar izatea.

2.2 IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31.art.).

- Aginduak ez betetzea disziplina eza, irain, mesprexuz edota desafioz egindakoa.

- Hezkuntza-komunitateko kideen aurkako mehatxuak edo irainak.
- Azterketa-ereduak edo erantzunak lapurtzea kopiatzea, hedatzea, saldu edo erostea.
- Eskolako dokumentazioan aldaketak egitea, edo dagokien hartzaileei helarazi galaraztea.
- Kalteak eragitea, bidegabeko erabileragatik, ikastetxeko lokal, altzari, material edo dokumentuei. Hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideen gauzetan era berean kalteak eragitea.
- OOGak hartutako erabakiak nahita ez betetzea.
- Eskola komunitateko beste inoren norberaren irudiaren gaineko eskubidea ez errespetatzea grabazio-baliabideak erabiliz.
- Besteei bere eskubideak baliatzeko aukera galaraztea edo nahi ez duen zerbait egitea behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- Ordena nahasten duten portaerak izatea autobusean zein jangelan.
- Edonori lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtzarik gabe erabiltzea.
- Gezurra esatea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horrekin hezkuntza-komunitateko beste kideri kalte egiten bazaie.
- Jaiotza, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa zein psikikoa, osasun egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo beste ezer dela medio egindako diskriminaziozko egintzak edo jokabideak.
- Jokabide desagokiak (aurrekoa atalean zehaztutakoak) hiru aldiz izatea hiruhilekoan.

- Ikasleak ordenagailuaren erabilpen txarra egingo balu, horrek, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide larria (BAJ) suposatuko luke. Erabilera txartzat hartuko dira: deskonfiguratzea, kanpotik urratzea, barruan aldaketak egitea...
- Institutuko eraikuntza barnean debekatuta dago mobilaren erabilera (piztuta edukitzea, hitz egitea, grabazioak egitea...). DBH 1. 2. eta 3. mailetako irteeretan gaua kanpoan pasatzen bada, aterpeko araudiak ixiltasuna markatzen duen ordutik aurrera, mugikorrek jaso egingo dira.

2.3 BIZIKIDETZARI KALTE LARRIAK ERAGITEN DIETEN JOKABIDEAK (32. art.).

- Irakasleekiko disziplinarik gabeko egintza edo obedientzia ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne.
- Hezkuntza komunitateko kideen aurkako adierazpen –ahozko, idatzizko, informatikako edo beste moldeetakoak- biziki laidogarri edo iraingarriak.
- Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazioa edozein jatorrizkoa delarik.
- Jazarpen sexista.
- Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
- Hezkuntza-komunitateko kideak osasunerako kaltegarriak diren jokaerak eta kontsumoak izatera

bultzatzea; hala nola, tabakoa, alkohola eta beste drogak.

- Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean.
- Berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzea.
- Liskarrak sortu edo jokabide erasokorrak izatea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
- Kalteak nahita eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileenetan, beste ikaslerenetan edo beste edozeinenetan. Bereziki hauek kalte larrien eragiletzat joko dira:
 - Segurtasun elementuetan (estintoreak, ebakuazio panelak...) egindako kalteak.
 - Alarma-sistemako elementuak manipulatzeko edota hondatzea.
 - Ekipo informatikoak nahita kutsatzea edota malwarea instalatzea.
 - Ur, gasa, telefonia, elektrizitate horniketarako etetea.
- Ordena nahasten duten jokabideak izatea autobusean edo eskolako jangelan, horien kariaz hezkuntza-komunitateko kideentzat egoera arriskutsuak sortzen badira.
- Besteen ohorea, intimitatea edota irudi propioa kaltetzeko grabazio baliabideak erabiliz burututako egintzak.
- Ikastetxeko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilia aritzea.

- Eskolako dokumentazio eta erregistroetan kalteak, informazio aldaketak egitea. Dokumentu hauek ezkutatzea edota baimenik gabe ateratzea.
- Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.
- Aurreko atalean (Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak) aipatutako hutsegiteren bat egin izana hiru aldiz ikasturte berean.
- Oro har besteen eskubideen aurka zuzen-zuzen aritzea. Besteen osasuna, osotasun fisikoa, adierazpen-askatasuna, parte-hartzea, bilera eskubidea, intimitatea, norberaren irudia eta diskriminazioa ez jasateko eskubideen aurka aritzea.

3. HEZKUNTZA-NEURRI ZUZENTZAILEAK.

3.1 JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA (34. art.).

Irakasle guztiek hartuko dute parte jokabide hauen zuzenketak honako neurriren bat proposatuz:

- Izandako jokabideari buruzko hausnarketa.
- Kaltetuta suertatu diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- Jokabide-eredu egokiak barnerratzeko jarduerak.
- Izandako jokabide desegokiarekin zerikusi duen zereginen bat egitea.
- Unean zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua.

3.2 IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN **AURKAKO JOKABIDEEN** **ZUZENKETA (35. art.).**

Zuzendariak aurreko ataleko edota honako hauetariko beste neurriren bat edo gehiago aplika ditzake:

- Jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta bideratzeko asmoak.
- Ohartarazpen idatzia.
- Gurasoen aurrean egindako ohartarazpena.
- Talde edo gelaz aldatzea, alde baterako edo behin betirako.
- Gehienez hiru hilabeteko lan hezigarriak, bai eragindako kalteak konpontzeko, bai ikastetxeko jarduera hobetzeko.
- Gurasoekin egon artean, eta gehienez hiru egunez, ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko saioetara joateko eskubidearen etetea.
- Hiruhilekoan egin beharreko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea. Hutsegitea hiruhileko baten bukaeran izan bada, hurrengokoaren ekintzetara joateko eskubidea etetea. Kasu hauetan ikastetxean arreta emango zaio ikasleari.
- Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez hiruhilekoan.
- Hondatutako ordenagailuaren konponketa ikasleak ordaindu beharko du.

- Mobilen arau hori lehen aldiz hausten denean, mugikorra aste baterako (5 eskola-egun) kenduko zaie eta hurrengo alditan hilabeterako.

3.3 IKASTETXEKO BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETA (36. art.).

Zuzendariak aurreko ataletako edota honako hauetariko beste neurriren bat edo gehiago aplikatu ditzake:

- Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, betiere sei hilabetez gehienez ere.
- Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru lanegunetik hogeira bitartean, betiere ebaluazioa galdu gabe eta etxerako zeregin batzuk aginduta.
- Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola egunetik hogeira bitartean, betiere ebaluazioa galdu gabe eta etxerako zeregin batzuk aginduta.
- Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioa zerbitzua edo jangela zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hauek ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango dira.
- Ikastetxez aldatzeko proposamena (37. art.) egin ahal izango da honako kasu hauetan:
 - Mota honetan hutsegiteren errepikapena.
 - Tratu txarrak edo sexuagatiko jazarpena.
 - Eraso irakasle bati.

- Hezkuntza-komunitateko beste kideei eraso larriak.

IKASLEAK BILERAK EGITEKO BETE BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

1. Bilera proposamena geletako ordezkariak egin behar dute edo 2. zikloko ikasleen %5ak (gela bakoitzetik ordezkari bat).
2. Bilera proposamena 2 egun lehenago egingo da idatziz. Salbuespen gisa egun bat lehenago egin ahal izango da proposamena, beti ere garbi azaltzen bada lehenasuna edo urgentzia.
3. Idatzizko proposamenak baldintza hauek jaso beharko ditu.
 - Nork deitzen duen?
 - Noizko deitzen den bilera?
 - Gai-zerrenda.
4. Proposamena, delegatuek Zuzendaritzari eta ikasleei lehenbailehen luzatu beharko diete.
5. Ikasleek bilerak jolastorduetan geletan egingo dituzte. Bozketaren bat egin beharko balitz, hau bozka sekretuz egingo da, eta proposamenaren onarpena gehiengo absolutuz izango da.
6. Botazioen emaitzak jaso eta Zuzendaritzari luzatuko zaizkio 24 ordu baino lehenago.
7. Bilera deialdietan ez da kutsu sexista edo politikoa duten gairik onartuko.

IKASLEEN GREBA ESKUBIDEAZ.

Ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko 201/2008 dekretuak jasotzen duen ikasleen greba eskubideak hau dio:

Greba eskubidea, eskubide norbanakoa dela, beraz, ikasleek ez dute kolektiboki edo talde bezala greba egiteko eskubiderik.

Baina, norbanako eskubidea erabiltzerakoan ere, ikasleak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Ikasleek egun horretan klasera ez etortzeko baimena dutela adieraziz gurasoek sinaturiko orria ekarri behar dute egun bat lehenago, baina jakin behar du eskubide honek berarekin dakarrela egun horretako, gai, azterketa, etab... galtzea.
- Baimena ekartzen ez duten ikasleen gurasoei hutsegitea jakinarazi eta ikasleei falta jarriko zaie.
- Eskolara etorri nahi dutenek, hau da, grebarik egin nahi ez dutenek, klasetara etortzeko eta klaseak normaltasunez jasotzeko eskubidea dute.
- Eskolara ez etortzeko eskubideak ez dakar berarekin irakasleak berriro gai hori azaldu beharra.
- Ikastetxeak ez du inongo ardurarik izango ikaslearengan, honek ez etortzeko eskubidea erabiltzen duen momentutik, baina ardura guztietaz jabetzeko beharrezkoa da gurasoei jakinaraztea edo ezin balitz Ordezkaritza Organo Gorenari.

